

ARAUTEGIA, UPV/EHUko ZUZENBIDE FAKULTATEAN GRADU AMAIERAKO LANAK EGIN ETA DEFENDATZEARI BURUZKOA (Fakultateko Batzarrak 2024ko uztailaren 23ko saioan onartua)

ATARIKOA

822/2021 Errege Dekretuak, irailaren 28koak, unibertsitateko ikasketen antolaketa eta kalitatea ziurtatzeko prozedura ezartzen dituenak, (1393/2007 Errege Dekretua ordeztzen du) xedatzen duenez, titulu ofiziala eskuratzeko nahitaezkoa da Gradu Amaierako Lana egin eta gainditzea. Hala, ikasleak erakutsi eta egiaztatu behar du menperatu egiten dituela graduko unibertsitate titulu ofiziala definitzen duten ezagutza eta gaitasunak, eta badakiela horiek aplikatzen. Gradu Amaierako Lanak 6 kredituko balioa izango du gutxienez eta, gehienez, 24 kreditu 240 kredituko tituluetan, 30 kreditu 300 kredituko tituluetan, eta 36 kreditu 360 kredituko tituluetan. Ikasketa planaren azken fasean egin beharko da, unibertsitate edo ikastegi bakoitzak ezartzen dituen irizpideak kontuan hartuta. Era berean, ekitaldi publiko batean defendatu beharko dira Gradu Amaierako Lanak, ikastegiak edo, hala badagokio, unibertsitateak ezarritako arautegian jaso legez.

Hartara, UPV/EHUko Gradu Amaierako Lana egin eta defendatzeari buruzko Arautegia onartu zen 2023ko abenduaren 14ko Gobernu Kontseiluan eta, UPV/EHUko Graduaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren arloko errektoreordearen 2024ko otsailaren 7ko erabakiaren bidez, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen 2024ko apirilaren 10ean (71. zk.). Zenbait arau orokor ezartzea da arautegi horren helburua, UPV/EHU osoko Gradu Amaierako Lanak planifikatu eta ebaluatzeko orduan homogeneotasuna bermatzera bideratutako irizpide eta prozedura bateratuak ezartzeko. Edonola ere, bateratze horrek ez die titulazio bakoitzaren balizko berezitasunei eragingo; horiek guztiak kasuan-kasuan aztertu, arautu eta argitaratuko dituzte ikastegietako batzarrek.

Arautegiaren 1.4 artikulua xedatzen duenez, "Fakultate edo eskoletako batzarrek arautegi hau garatu ahalko dute ikastegi bakoitzean ematen diren graduko titulu bakoitzaren ezaugarrietara moldatzeko. Edonola ere, ikastegi bakoitzak zehazten dituen arauak ikastegiko batzarrean onartu eta ikastegian bertan argitaratu beharko dira".

Ahalmen horren egikaritzean, UPV/EHUko Zuzenbide Fakultateak arautegi hau sortu du, zeinaren helburua baita ikastegian eskaintzen diren titulazioetako Gradu Amaierako Lanak (aurrerantzean, GRAL) egin eta defendatzeko jarraibide propioak ezartzea.

1. artikulua. GRALaren HELBURUA ETA IZAERA.

1.- Zuzenbideko GRALa da ikasle bakoitzak, zuzendari baten edo gehiagoren gidaritzapean, egin behar duen bakarkako memoria, azterlan, txosten edo irizpen originala, graduan landutako gai baten edo gehiagoren ingurukoa.

2.- Kriminologiako GRALa da ikasle bakoitzak, zuzendari baten edo gehiagoren gidaritzapean, egin behar duen bakarkako ikerketa proiektua, txosten kriminologikoa edo kanpoko praktiken ebaluazio memoria. Lan originala izan behar du, eta honako egitura hau izan behar du nahitaez: atal teoriko bat eta atal enpiriko bat; edo atal teoriko bat eta ikergaiaren egoerari buruzko txosten bat¹.

3.- Ikasleak erakutsi eta egiaztatu beharko du bereganatu egin dituela kasuan kasuko titulazioari dagozkion ezagutzak eta gaitasunak. Horretarako, lan bat egin eta aurkeztu beharko du, bertan agerian utzi behar duelarik gai dela datuak bilatu, kudeatu eta era kritikoan interpretatzeko (erabilera akademikoekin bat). Lan horretan, halaber, aztergaiari buruzko hausnarketa pertsonala ere jaso beharko da, betiere aintzat hartuta GRALa zein gradutan egiten den (Zuzenbidea edo Kriminologia).

4- GRALa Jabetza Intelektualari buruzko Legeak babestutako lana da. Ondorioz, indarrean dagoen legerian ezarritako baldintzen arabera, lana egin duen pertsona izango da jabetza intelektualeko eskubideen titularra, baldin eta ikasle bakoitzak onartuko duen GRALa esleitzeko dokumentuan besterik adierazita ez badago.

2. artikulua.- MATRIKULA ETA DEIALDIAK.

1.- GRALaren matrikula unibertsitateko matrikularako epe orokorrean egingo da, Fakultateak hartarako ezartzen dituen epe zehatzetan, lanak dituen kredituen araberrako prezio publikoak ordainduz. GRALaren matrikula egiteko, ikasketa plana bukatzeko falta dituen irakasgai guztietan matrikulatuta egon beharko du ikasleak. Salbuespen kasuetan, GRALaren matrikula egiteko aparteko epeak ezarri ahal izango ditu Ikastegiko Batzarrak. Urtarrileko azterketaldia amaitutakoan, otsailean hasiko den aparteko epean matrikulatu ahalko da ikaslea GRALaren irakasgaietan (baldin eta hartarako baldintzak betetzen baditu).

2.- Matrikulak eskubidea emango dio ikasleari ikasturte bakoitzean bi deialdi ofizialetara aurkezteko, Gobernu Kontseiluak onartutako egutegian zehaztutakoarekin bat. Ikasleak ikasturterako ezarritako deialdietan lana aurkeztu ez badu, edo ebaluatu ez bazaio, berriro egin beharko du matrikula hurrengo ikasturtean.

3.- Ikasleak matrikulan zehaztu beharko du GRALa zein hizkuntzatan egin eta defendatu nahi duen.

4.- GRALaren ebaluazioaren akta unibertsitateko ebaluazio arauari jarraituz egin beharko da, eta epaimahaiko idazkariaren ardura izango da akta behar bezala egitea eta administrazio zerbitzuei helaraztea, ikastegiak zehaztutako prozeduraren arabera. Bestalde, ikastegiko zuzendariaren ardura da artikulua honetan jasotakoa bete egiten dela zaintzea.

3. artikulua. GRALen BATZORDEA: OSAERA ETA EGINKIZUNAK.

1.- Gradu Amaierako Lanen Batzordea sortuko da titulazio bakoitzean, eta Ikastegiko Batzarrak izendatuko ditu kideak:

¹ Bigarren modalitate horrek GRALari ikuspegi enpirikoa (kuantitatiboa eta/edo kualitatiboa) ematen dioten aurretiazko lanen eta azterlanen analisisia erraztu behar du, azterketa teoriko hutsek ez baitute ikuspegi hori barne hartzen.

- a) Dekanotzaren ordezkari bat.
- b) Titulazioko koordinazioaren arduradunak.
- c) Laugarren mailako koordinatzailea.
- d) Sail edo sail atal bakoitzaren ordezkari bat.
- e) Ikasleen ordezkari bat, Ikasleen Kontseiluak graduako ikasleen artean izendatutakoa.
- f) Administrazio eta zerbitzuetako langileen ordezkari bat.

2.- Honako hauek dira Batzordearen eginkizunak:

- a) Ikasleei informazioa helaraztea. Ikasleekin elkartu beharko da irakasgaiaren nondik norakoak azaltzeko: helburuak, lanarekin lotutako gaitasunak, proiektatutako jarduerak eta ebaluazioa.
- b) Ikasleek irakasgaiarekin lotura duten gaitasunak bereganatuko dituztela zaintzea. Batzordeak GRALen jarraipena egin beharko du, ikasleek, Graduan definitutakoaren arabera, irakasgaiarekin lotura duten gaitasun espezifikoak bereganatzen dituztela bermatzeko.
- c) Lanak egin bitartean antzeman diren gorabehera akademikoei aurre egiteko konponbideak proposatzea.
- d) GRALak egiteko estilo arauak sortzea.
- e) GRALaren zuzendariak aurkeztu behar duen txostenaren eredia adostea (lana gordailutu ondoren eta defentsa egin baino lehen aurkeztu behar du zuzendariak txostena).
- f) Kasuan kasuko graduaren urteko txostena egitea.
- g) Ikastegiko Batzarrak bere eskumenen esparruan esleitzen dizkion gainerako eginkizun osagarri guztiak.
- h) Kriminologiako GRALen batzordearen kasuan, Batzordearen ardura izango da GRALak ebaluatuko dituzten epaimahaiak izendatzea.
- i) Defentsa aldi bakoitzean Ohorezko Matrikula kalifikazioa emateko erabakia adostea, eta GRAL onenaren sariak emateko erabakia hartzea ikasturte bakoitzean.

4. artikulua.- GRALak EGITEKO IRIZPIDE NAGUSIAK.

1.- Gradu Amaierako Lanak garatu eta idazteko, ikaslea ondoko irizpideak betetzen ahaleginduko da eta, horretako, lanaren zuzendariaren laguntza izango du:

- a) UPV/EHUren erakunde irudia eta EHU tipografia erabiltzea, erakundearen bereizgarri baitira.
- b) Hizkuntza inklusiboa erabiltzea, eta genero ikuspegia kontuan hartzea gizakiekin lotutako lanetan.
- c) Titulazio bakoitzari dagozkion estilo arauak errespetatzea.

2.- Irailaren 28ko 822/2021 Dekretuak, unibertsitate ikasketen antolaketa eta kalitatea ziurtatzeko prozedura ezartzen dituenak, ikasketa planak diseinatzeko ezartzen dituen printzipio gidariei helduta, Gradu Amaierako Lan guztietan jaso beharko da egindako lanari buruzko gogoeta bat, printzipio eta balio demokratikoak eta garapen

jasangarrirako helburuak kontuan hartuko dituen. Gogoeta horretan aztertuko da GRALak zer nolako lotura duen balio horiekin eta GJHen lan esparruarekin, eta/edo horiekiko ikuspegi kritikoa planteatuko da.

Gogoetan arreta berezia jarri ahal izango zaie honako hauei:

- Giza eskubideen eta oinarrizko eskubideen errespetua, baita balio demokratikoena ere.
- Genero berdintasunaren eta tratu berdintasunaren errespetua, eta inor ez diskriminatzea, arrazoia edozein delarik ere: jaiotza, jatorria, nazionalitatea edo etnia, erlijioa, sinesmen edo iritzia, adina, desgaitasuna, sexu orientazioa, genero identitatea edo genero adierazpena, sexu ezaugarriak, gaixotasuna, egoera sozioekonomikoa, edota beste edozein ezaugarri edo inguruabar pertsonal zein sozial.
- Irisgarritasun unibertsalaren eta pertsona guztientzako diseinuaren printzipioen errespetua.
- Jasangarritasunaren eta klima aldaketaren tratamendua.

Gogoetak 200 hitz izango ditu gutxienez, eta atal espezifiko bat izango da lan idatzian. 822/2021 Errege Dekretuan aipatzen diren erreferentziazko arauekin batera, EHUagenda 2030 erabili ahal izango da gure unibertsitatearen erreferentziazko arau espezifiko gisa.

5. artikulua. ZUZENDARIA: ESLEIPENA, EGINKIZUNAK ETA GAIAREN AUKERAKETA.

1.- Graduan eskolak ematen dituen sail bateko irakasle bat izango da GRALaren zuzendaria, edo Zuzenbide Fakultateari atxikitako irakasle bat.

2.- Zuzendaria arduratuko da ikasleei lanaren ezaugarriak azaltzeaz eta hura egiteko bidean laguntzeaz: dokumentazio bilketa, bibliografiaren berrikusketa, jurisprudentzia, metodologia, datu bilketa, datuen analisia, lanaren plangintza, lanaren egitura (landu beharreko alderdiak, atalen banaketa, etab.), denboren plangintza eta testuaren berrikusketa.

Ezarritako helburuak betetzen direla ere zainduko du, lanaren jarraipena egingo du eta defentsa egin aurreko txosten idatzia prestatuko du, zeina ikasleari helaraziko baitzaio.

3.- GRALa pertsona batek baino gehiagok zuzendu dezakete, baina, edozein kasutan, horietako batek gutxienez graduko edo gradu bikoitzeko titulazioan irakasle izan beharko du nahitaez. Kriminologiako Graduko GRALen kasuan zehazki, ohikoa izango da GRALa bi irakaslek zuzentzea, eta horietako bakoitza Kriminologiako GRALak nahitaez bildu behar dituen bi ataletako batez arduratzea (hau da, atal teorikoa eta atal enpirikoa). Salbuespen gisa, irakasle bakarra aritu ahalko da zuzendari lanetan, baldin eta pertsona horrek gaitasuna badu alderdi teoriko, metodologiko eta enpirikoetan orientatzeko, analisia egiteko eta lana ebaluatzeko.0}

4.- Honako hauek ere zuzendu ahal izango dituzte GRALak: unibertsitateari atxikitako doktoreek, doktorego aurreko kontratua duten langileek (kontratuak hala baimentzen badu) eta, lanaren ezaugarrien arabera, UPV/EHUrekin kontratu bidezko lotura duten zein ez duten adituek, betiere, beren eskumen profesionalak eta

aztergaiari lotuta duten esperientzia praktikoa hartarako egokiak badira. Kasu guztietan, alde guztien adostasuna izan beharko da aldez aurretik. Edozein kasutan, ezinbestekoa izango da zuzendarietako bat graduari edo gradu bikoitzean eskolak ematen dituen sail bateko kidea izatea, edo Zuzenbide Fakultateari atxikita egotea.

5.- Ikasleak, praktika hitzarmen baten barruan, GRAL osoa edo zati bat UPV/EHU ez den erakunde batean egiten badu, zuzendaria unibertsitatetik kanpokoak izan ahalko da, baina kasu horretan 1. ataleko baldintzak betetzen dituen zuzendarikide bat izan beharko du.

6.- Honako prozedura hauek ezarriko dira ikasleei zuzendariak, GRALerako gaiak eta hizkuntzak esleitzeko:

6.1.- Ikaslearen eta irakaslearen arteko adostasunez esleitzea:

6.1.1.- GRALen Batzordeak izena emateko epeak ezarriko ditu (ohikoa irailean eta ezohikoa otsailean), eta ikasleek GRALerako proposamena aurkeztu beharko dituzte. Bertan adierazi beharko dute zeintzuk izango diren GRALaren aztergaia eta hizkuntza, eta horrekin batera aurkeztu beharko da artikuluko honen aurreko atalean ezarritako baldintzak betetzen dituen irakasle baten adierazpena, lana zuzentzeko konpromisoa jasotzen duena (hartarako sortutako inprimaki ereduaren arabera). Horrez gain, irakaslearen saileko zuzendariaren oniritzia izan behar du aurkeztutako proposamenak.

6.1.2.- Batzordeak proposamena onartuz gero, GRALa ikasleari esleituko zaio zuzenean, eta ez du lanak banatzeko egingo den deialdian parte hartu beharko. Proposamena onartu ezean, gai bat esleituko zaio ikasleari, "Sailek aurkeztutako eskaintzaren araberrako deialdi bidez esleitzea" izeneko atalean azalduta dagoen prozedura betez.

6.1.3.- Adostutako GRALen proposamenak ezohiko epean esleitzen badira, lanak ez dira sailek egindako GRALen eskaintzatik kenduko.

6.2.- Sailek aurkeztutako eskaintzaren araberrako deialdi bidez esleitzea:

6.2.1.- GRALen Batzordeak izena emateko bi epe ezarriko ditu GRALik esleituta ez duten ikasleentzat; bata ohikoa urri/azaroan, eta bestea ezohikoa otsail/martxoan.

6.2.2.- Ikasleek, ezarritako epean, adieraziko dute zer lehentasun duten GRALa egiteko eskaintzen diren gai eta zuzendarien artean. Ondoren, ikasleak matrikula egin den unean zeukan batez besteko notaren araberrako egingo da esleipena.

7.- GRALerako esleitutako lanak eta zuzendariaren izendapenak bi ikasturteko iraupena izango du; epe hori behin igarota, ikasleak lanarekin eta zuzendariarekin jarraitzeko eskaria egin ahal izango dio GRALeko Batzordeari, zuzendariak berariaz horretarako baimena emanda. Hala ere, ikasturte bietatik lehena igarotakoan, salbuespenez eta ikasleak edo zuzendariak hala eskatuta, esleipena bertan behera utzi ahalko du GRALen Batzordeak. Hala gertatuz gero, edo berritzez egin ezean, ikasleak gaia eta zuzendaritza esleitzeko prozedura (artikulu honetan araututakoa) bete beharko du berriro.

8.- Ikasleak GRALa gaitzen ez badu, edo bi deialdietako batean ere egiten ez badu defentsa, hurrengo ikasturtean berriro egin beharko du matrikula.

6. artikulua. ONDORIO ETIKOAK DITUZTEN GRALak.

1.- Gizakiekin, haien datuekin eta laginekin; animaliekin; edo agente biologikoekin edo genetikoki eraldatutako organismoekin ikerketa jardueraren bat egitea eskatzen duten lanen kasuan, tutoreak, lana mota horretakoa dela identifikatuta, ikasleari lagunduko dio ondorio etikoen garrantzia baloratzen, eta azalduko dio nola bete behar dituen lan akademikoetarako indarrean dauden jarraibide espezifikoak, zeinak eskuragarri baitaude UPV/EHUko Ikerketa eta Irakaskuntzako Etika Batzordearen webgunean.

2.- Kasu horietan, Ikerketa eta Irakaskuntzako Etika Batzordearen jarraibideetan aipatzen diren dokumentu osagarriak aurkeztu beharko ditu ikasleak, GRALa defendatzeko gainerako dokumentuekin batera. Alderdi hori arreta bereziz gainbegiratu beharko du tutoreak.

3.- En el caso de trabajos que por razones académicas utilicen, secundariamente, información derivada de otras actividades académicas desarrolladas (por ejemplo, prácticas, formación dual, etc.) será necesario indicar explícitamente en el trabajo la fuente de la información empleada y el modo en el que se ha garantizado la anonimización, aspectos que las personas tutoras deben supervisar con especial atención.

4.- Ondorio etikoak dituzten lanen defentsan, epaimahaiak ebaluatu beharko du bete ote diren lan akademikoetarako indarrean dauden jarraibide etiko espezifikoak. Izan ere, ondorio etikoak ezagutzea eta jarraibideak betetzea zeharkako gaitasunak dira, eta nahitaez frogatu behar dira ikerketa jarduerari ekiteko aukera ematen duten lanetan.

7. artikulua. LANAREN GORDAILUTZEA ETA DEFENTSA.

1.- GRALa gordailutu ondoren eta defentsa egin baino lehen, zuzendariak idatzizko txostena helaraziko dio epaimahaiburuari. Txostena GRALen Batzordeak adostutako ereduaren arabera sortu beharko da, eta zuzendariak adierazgarritzat jotzen duen zeinahi ohar jaso ahalko du bertan; baina inola ere ezin izango du GRALaren kalifikaziorik proposatu, iradoki edo eman.

2.- Graduaren edo gradu bikoitzaren azken urtean defendatu eta ebaluatu behar da GRALa, betiere, ikasleak ikasketa planeko gainontzeko irakasgai guztietarako matrikula egina badauka.

3.- Zuzenbide Fakultateak GRALaren defentsarako bi deialdi egingo ditu. Salbuespen gisa, ikasleak urtarrileko azterketaldian bukatu baditu ikasketak, GRALaren defentsa horren ondoren egiteko baimena eskatu ahal izango du. Hori baino lehen, ordea, hartarako ezarri eta ikastegiko azterketa egutegian argitaratu diren datetan gordailutu beharko du lana.

4.- Ikasleen betebeharrak:

- a) GRALaren defentsa egiteko eskaera aurkeztea ikastegiko zentroan, aurrez ezarritako prozeduraren arabera.
- b) GRALa formatu digitalean gordailutzea erakundeko biltegi akademikoan. Ikastegiko idazkaritzak kopia digital bana bidaliko die epaimahaikideei.

5.- Ikastegiak GRALen defentsak egiteko ekitaldiak antolatuko ditu. Aldez aurretik, baina, GRALaren kopia bat bidaliko die epaimahaikideei.

6.- GRALaren defentsa epaimahaiaren aurrean egingo da aurrez aurre, era publikoan, eta zuzendariak ezin izango du parte hartu. Ikasleak azalpena egin ondoren, galderei erantzuteko txanda bete beharko du. Gaiaren azalpenean, ikasleak zehaztasunez azaldu beharko ditu GRALaren helburuak, metodologia, edukia eta/edo eskuratutako emaitzak, baita atera dituen ondorioak ere. Horretarako, epaimahaiak aurrez ezarritako denbora bete beharko du (20 minutu, gehienez). Ondoren, epaimahaiak balorazio, iruzkin edo galderak egingo dizkio ikasleari, eta hark horiei erantzun beharko die.

Arrazoi akademikoak direla eta, edo atxikitako ikastegiaren arrazoiak direla eta, epaimahaikideren batek GRALaren defentsan egoterik ez badu, bideokonferentzia bidez parte hartu ahal izango du. Halakoetan, hiru epaimahaikideetako batek, gutxienez, egon beharko du bertan, defentsaren ekitaldian. Epaimahaiko idazkariak izendatutako kidea arduratuko da bideokonferentziaren esteka sortzeaz eta hura gainerako epaimahaikideei bidaltzeaz.

Defentsaren ekitaldian bideokonferentzia bidez parte hartzen duten epaimahaikideek UPV/EHUko bulegoren batetik konektatu beharko dute (behar bezala justifikatutako inguruabarren bat bada izan ezik); horrela, erakundeko teknikarien laguntza jaso ahal izango du, hala behar izanez gero.

7.- Titulua egiaztatzeko memorian ezarritakoaren arabera, graduari edo gradu bikoitzean eskolak emateko erabili diren hizkuntzetako edozeinetan egin, aurkeztu eta defendatu ahal da GRALa, baldin eta hizkuntza horiek menperatzen dituzten epaimahaiak osatu ahal badira. Edonola ere, GRALa autonomia erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan idatzi eta defendatzeko eskubidea bermatuko da.

8. artikulua. EPAIMAHAIK ERATZEA.

1.- Gradu batean edo gradu bikoitz batean lanaldi osoan eskolak ematen dituen irakasle orok parte hartu behar du, nahitaez, Gradu Amaierako Lanak ebaluatzeko epaimahai batean.

a) Zuzenbideko GRALen kasuan:

Sail bakoitzak epaimahai bi eratuko ditu lurralde atal bakoitzean, bat gaztelaniaz defendatzen diren GRALak ebaluatzeko, eta beste bat euskaraz defendatzen direnak ebaluatzeko. Sailak epaimahairik eratzen ez badu, edo kideak nahikoa aurrerapenaz izendatzen ez baditu, GRALen Batzordea arduratuko da epaimahaiak osatzeaz, sail horretan lanaldi osoan diharduten IRIen artean zozketa eginda.

b) Kriminologiako GRALen kasuan:

Sail bakoitzak izendatuko ditu diziplina arteko epaimahaiak osatuko dituzten kideak, graduari duten presentziaren arabera. Zuzenbide Fakultateak diziplinartekotasuna bermatuko du epaimahaiak osatzeko orduan. Sail batek epaimahairik eratzen ez badu, edo kideak nahikoa aurrerapenaz izendatzen ez

baditu, GRALen Batzordea arduratuko da epaimahaiak osatzeaz, sail horretan lanaldi osoan diharduten IRlen artean zozketa eginda.

2.- Epaimahai bakoitzak hiru kide eta hiru ordezeko izango ditu. Horietako bat, gutxienez, lanaren gaiarekin lotura duen arlo batekoa izango da. Gradu Amaierako Lanen zuzendari edo zuzendarikideak ezin dira, inola ere, eurek gidatutako lana ebaluatuko duen epaimahaiko kide izan, baina epaimahaiak (zuzendariak egindako balorazio txostena irakurrita) baimena eman diezaieke deliberazio prozesuan egoteko.

3.- Epaimahaiburuak eta idazkariak eginkizun horietan jardungo dute beti, eta, horiek izendatzeko, irakasle kategoria eta antzintasuna hartuko dira kontuan.

4.- Epaimahaiko idazkaria arduratuko da GRALaren kalifikazio akta betetzeaz eta Fakultateko administrazio zerbitzuei emateaz, III. eranskinean jasotakoa kontuan hartuta. Era berean, hiru egun balioduneko epea izango du aktak bukatu eta sinatzeko, GRALaren defentsa egin den egunetik zenbatzen hasita.

9. artikulua. DEFENTSA EGITEKO EGUTEGIA.

Zuzenbide fakultateko dekanok ezarriko ditu, ikasturteko lehen hiruhilekoan, deialdi bakoitzean matrikula egiteko, lana gordailutzeko eta defentsa egiteko datak. Epaimahaiak izendatu eta GRALetako matrikulak egin ondoren, dekanok ezarriko du defentsa bakoitza egiteko data, ordua eta lekua.

10. artikulua. EBALUAZIOA ETA KALIFIKAZIOA.

1.- Ikaslearen aurkezpena bukatuta eta zuzendariaren txostena irakurrita, ikasleari eman beharreko kalifikazioa erabakiko du epaimahaiak (III. eranskina). Ebaluazioa GRALaren irakaskuntza gidan argitaratutako irizpideen arabera egingo da, betiere, titulua egiaztatzeko memorian zehaztutakoa kontuan hartuta.

2.- Kalifikazio kuantitatiboa honako faktore hauen batura izango da:

- a) Kalitate zientifikoa (% 30).
- b) Azalpenaren argitasuna, hala idatziz nola ahoz. Bereziki baloratuko da azalpena ingelesez edo frantsesez egitea (% 40).
- c) Eztabaidatzeko eta argudiatzeko gaitasuna (% 30).

3.- Kalifikazioa 0tik 10era bitarteko zenbakizko eskalan emango da, hamartar bakarrarekin, eta kalifikazio hori letraz ere adieraziko da:

- 0 - 4,9: Suspentso (S).
- 5,0 – 6,9: Nahiko (N).
- 7,0 - 8,9: Oso ongi (OO).
- 9,0 - 10: Bikain (B).

4.- Ohorezko Matrikularen (OM) aipamena eman dakieke 9,0 edo hortik gorako kalifikazioa lortu duten ikasleei. Gehienez ere, kasuan kasuko ikasturtean irakasgai horretan matrikulatu diren ikasleen ehuneko bostek jaso ahal izango dute kalifikazio hau.

5.- Aztergaiari edo lanarekin lotura duen irakasgaiari dagozkion gaitasun espezifikoek gain, GRALa egin eta defendatzeko orduan, GRALaren irakasgaiari

dagozkion gaitasun espezifikoak badituela erakutsi beharko du ikasleak.

- a) Argudiatze eta arrazoibide kritikorako teknikak egoki erabiltzea.
- b) Publiko espezializatuari informazioa helarazteko ahalmena ematen dioten ahozko eta idatzizko komunikazio prozesuak menperatzea.
- c) Ikasteko prozesua modu jarraitu eta autonomoan kudeatzea.
- d) Gai batean espezializatzea, lan merkatuan arrakastaz sartu ahal izateko edo, hala badagokio, bestelako espezializazio zein birziklatze ikasketak egiten jarraitzeko.

6.- Ikasleak gainditzen ez badu, epaimahaiak GRALa hobetzeko iradokizunak emango dizkio txosten batean, lana berriz ebaluatzen denerako. Zuzendariari ere txostenaren kopia bat bidaliko zaio.

7.- Gradu Amaierako Lanen azken kalifikazioen berrikuspenak edo erreklamazioak unibertsitateko ebaluazio arauari jarraikiz egingo dira, baina ebaluazioa epaimahaiak egiten duenez, ebaluazioaren berrikuspena lehenengo instantzian epaimahaiak berak egingo du eta, bigarren instantzian, ikastegiko Erreklamazio Batzordeak emango du ebazpena; erabaki horren kontra gorako errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio unibertsitateko Errekurtsoen, Irizpenen eta Sinplifikazioaren arloko Batzorde Administratiboari.

XEDAPEN GEHIGARRIA.

Zuzenbide Fakultateko Akademia Antolakuntzako Batzordeak eskumena dauka arautegi hau garatzeko, baita arautegia aplikatzean sor daitezkeen gorabeherak interpretatu eta ebazteko ere.